

# Súper PEPO eta desiren lorategia




**K**aixo, Pepo naiz! Gogoratzen al zarete nitaz? Dagoeneko, hiru urte daramazkit Jotameko Superheroiaren Akademiaren. Bertara arratsaldean noa, eskolatik irteterakoan. Etan gogorlan egindudanez eta, batez ere, gainontzeko eiztun eta lagundu dieganez, koloretako nire hiru kapa lortu ditut: Urdina Lehenengo mailan, Berdea Bigarrean, eta Gorria Hirugarrean.

Esan behar dizuet neuz bezalako Superheroi batentzat gogorrena ez dela kapak lortzea izan, horiek ondoren mantentzea baizik.

Zure inguruan gertatzen denari etengabe erreparatzea oso zaila eta neketsua da. Horregatik, oraingo honetan, hanka barruraino sartu dut eta lagundu ordeztu, gauzak okertu ditut.

Zer gertatu zitzaidan kontatzea izango da hoberena:







**D**urant Jolas garaietan, Teresa bisitatzea da Irene lagunari eta bioi gehien gustatzen zaiguna. Berak zaintzen ditu eskola eta lorategia gu ez gaudenean. Eta guri asko gustatzen zaigu Teresak loreen izenak irakastea eta nola zaindu behar ditugun azaltzea. Guk Desioen Lorategia deitzen diogu, loreak usaintzen ditugunean desioak eskatzen ditugulako, bat edo bat beteko zaigulakoan.

Teresak esan zigun lore gehienak Zelia bizilagunari oparitzen dizkiola. Zelia urrutiko herrialde batetik etorritakoa da. Oso itsaso handia gurutzatu behar izan zuen hegazkinez honaino iristeko. Hegazkin txartelak oso garestiak direnez, Teresak oparitutako loreak saltzen ditu Zeliak azokan, eta horrekin lortzen du bidaiatzeko eta familia bisitatzeko behar duen dirua.


Baina, zer gertatu da? Hara, eskolako lorategia oso ederra izan da beti, baina aurtengo udaberria iritsitakoan, oso lore gutxi atera ziren eta inork ez zekien zergatik...

**U**daberria hasi baino hilabete lehenago, lagunekin nengoen jolas garaian. Zuhaitzen artean, ezkutaketan jolasten ari ginela, erle pilo atera ziren erlauntz batetik bat-batean. Irene negarrez hasi zen. Erle batek zitzada ederra eman zion hankan. Ni superheroi bat naizenez, nire eginbeharrekoa lagunak laguntzea da, erleek haur gehiagori zitzadarik eman ez ziezaieten. Behin eta berriz pentsatu nuen eta ideia bikaina bururatu zitzaidan, edo gutxienez, hala iruditu zitzaidan niri: erleak bizi ziren zuloa paperez eta zeloz estaltzea. Hartara, haur guztiak lasai-lasai jolastuko ziren patioan.

Duela aste batzuk arte ez nintzen nire okerraz jabetu, andereñoak klasean “polinizazioa” azaldu zigun arte. Badakit oso hitz arraroa dela baina nik ez dut sekula ahaztuko. Andereñoak esan zigun erleak polinizatzaileak direla, hau da, loreetara ezitia egiteko nektarraren bila joaten direnean eta horietan kokatzen direnean, atzeko hankatxoekin polena eramaten dutela. Eta polen hura beste loretan erortzearen ondorioz, lore gehiago hazten eta jaiotzen direla. “Ene bada!” Pentsatu nuen. “Ederra egin dudala uste dut, erleei beren zeregina oztopatuz”. Irenek begi zabalekin begiratu zidan andereñoak erleek naturan zuten zereginari buruz hitz egiten jarraitzen zuen bitartean. Klasea amaitutakoan, korrika lorategira joan ginen erleen erlauntza estaltzen zuen papera kentzera, baina beranduegi zen, denak desagertu ziren.

Orain ulertzen didazue oso triste nagoela diodanean? Hain ondo zaindutako lorerik gabe geratu da Teresa, Zeliak ezin du familia bisitatu, eta eskola kolorerik gabe utzi dut. A ze Superheroia naizen ni! Gaur arratsaldean ezin izan dut Akademiara kontzentratu, erleetan, loreetan eta polinizazioan pentsatzen eman dut denbora osoa. Azken klasea amaitzerakoan Akademiako andereñoari kontatzea erabaki dut.

- Ondo ez dagoen zerbait egin nuen, triste nago eta gainera uste dut Teresa eta Zeliak gain, erleak oso haserre egongo direla nirekin.
- Ez zaitetz triste jarri Pepo, batzuetan gauzak oker egiten ditugu; arazo bat konpontzen ari garela uste dugu, eta ez gara konturatzen beste bat sortzen ari garela. Halere, garrantzitsuena zera da: hura egin zenuela beste lagunduko zenuela pentsatzen zenuelako, eta gaizki egin zenuela konturatu zara. Oporretan pentsatu zer egin dezakezun hura konpontzeko.







**A**ndereñoari jaramon egin nion eta... ezetz asmatu zer gertatu zen? Bada ikasturte horretan neure burua eskaini nuen Teresari udazkenean eta neguan lorategia zaintzen laguntzeko.

Aurtengo udaberrian lore ugari daude berriro! Inork ez dielako erleei trabarik egin.

Superheroien Akademiako andereñoari oso ondo iruditu zitzaion Teresari laguntzea, eta nire erabakiarengatik zoriondu ninduen:

- Oker jardun arren, Pepo, konponbide bat bilatu duzu. Orain, Desioen Lorategian loreak daude berriro, Teresa poz-pez dago, Zelia laster familia bisitatzera joan ahal izango da, eta denek ulertu duzue erleak errespetatzea ezinbestekoa dela, nahiz eta ziztadak eman! Argi adierazi duzu oraindik ere zure Kapa Gorria merezi duzula.

Oraingo honetan oso irakasgai ona ikasi dut: Arduratsuak izan behar dugu, eta ondo pentsatu behar dugu zerbait egin aurretik, besteentzat txarra izan ote daitekeenari buruz.

Eta gogoan izan: ni bezalako superheroiek ere huts egiten dugu, baina, garrantzitsue-  
na horretaz konturatzea eta konponbide bat bilatzea da, eta zuk bakarrik aurkitzeko  
gai ez bazara, beste laguntza eska diezaiekezu!

Hurrengo abenturara arte, Superheroigaiak!

